

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua:	1900/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 20koa, 3922/91 (EEE) Erregelamendua, Kontseiluarena, abiazio zibilari aplikagarri zaizkion arau teknikoak eta prozedura administratiboak bateratzeari buruzkoa, aldatzen duena.
--------	---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Reglamento (CE) no 1900/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de diciembre de 2006, por el que se modifica el Reglamento (CEE) no 3922/91 del Consejo relativo a la armonización de normas técnicas y procedimientos administrativos aplicables a la aviación civil*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 377 de 27/12/2006)

**1900/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA
2006ko abenduaren 20koa,**

3922/91 (EEE) Erregelamendua, Kontseiluarena, abiazio zibilari aplikagarri zaizkion arau teknikoak eta prozedura administratiboak bateratzeari buruzkoa, aldatzen duena

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK, Europako Erkidegoa Eratzeko tratatua, eta, bereziki, haren 80. artikuluan 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute,

Eskualdeetako Komiteari aurretiaz kontsulta eginda,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽¹⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) 3922/91 (EEE) Erregelamendua ⁽²⁾, bere III. eranskinean, ezartzen ditu hegazkin bidezko garraio komertzialari aplikatu dakizkiokeen baldintza teknikoak eta administrazio-prozedura erkideak.

Baldintza eta administrazio-prozedura horiek eragina izango dute erkidegoko operadoreek erabiltzen dituzten hegazkin guztietan; ez da aintzat hartuko estatu kide batean edo hirugarren herrialde batean matrikulatuta dauden.

(2) Egokia da 3922/91 (EEE) Erregelamendua Kontseiluaren ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera betearazteko behar diren neurriak onartzea; Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak gauzatzeko prozedurak ezartzen ditu Erabaki horrek ⁽³⁾.

¹ Europako Parlamentuaren irizpena, 2006ko azaroaren 30ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko abenduaren 19koa.

² L 373 EO, 1991.12.31koa, 4. or. Erregelamendu horren azken aldaketa izan da 1899/2006 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena (Ikus Egunkari Ofizial honen 1. orrialdea).

³ L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22koa, 11. or.) aldatu zuen Erabakia.

(3) Egokia da, bereziki, Batzordeari gaitasuna ematea zehatz dezan zein baldintzatan aldatu edo osatu ahal izango diren 3922/91 (EEE) Erregelamendua bere III. eranskinean zehaztutako baldintza teknikoak eta administrazio-prozedurak. Estatu kideren bat ere salbuetsi ahal izango du horiek betetzetik. Honako hauek dira neurri orokor horien helburuak: Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea, eta Erregelamendu hau osatzea, funtsezkoak ez diren beste elementu batzuk gehituz. Neurri horiek hartzeko, 1999/486/EE Erabakiaren 5. *bis* artikuluan aurreikusitako arautze-prozedura kontrol-dunari jarraituko zaio.

(4) Aireko segurtasun egokia mantentzearekin lotutako premia-zko arrazoi larriak direla-eta, ezin badira bete kontrolpeko arautze-prozeduraren esparruan aplikatu ohi diren epeak, Batzordeak ahalmena izan behar du larrialdi-prozedura aplikatzeko, 1999/468/EE Erabakiaren 5. *bis* artikuluko 6. paragrafoan, neurri jakin batzuk hartzeari buruzkoan, aurreikusten dena.

(5) Beraz, hori aintzat hartuta, 3922/91 (EEE) Erregelamendua aldatu behar da.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

3922/91 (EEE) Erregelamendua aldatzen da, jarraian azaltzen den eran:

1) 8. artikulua aldatzen da era honetan:

a) Honako testu hau jarriko da 3. paragrafoko laugarren lerrokadaren ordean:

"Horrela izanez gero, Batzordeak estatu kide guztiei jakinaraziko die bere erabakia, eta azken horiek neurri hori aplikatzeko ahalmena izango dute. III. eranskineko dagozkion xedapenak ere aldatu ahal izango dira 11. artikuluko prozedurari jarraiki, neurri hori islatzeko."

b) Honako testu hau jarriko da 4. paragrafoko laugarren lerrokadaren ordean:

"Baiezkoa izanez gero, Batzordeak estatu kide guztiei jakinaraziko die neurria onartzea erabaki duela, eta

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

horiek guztiek neurri hori aplikatu ahal izango dute. III. eranskineko xedapenak ere, dagozkienak, aldatu ahal izango dira 11. artikuluko prozedurari jarraiki, neurri hori islatzeko."

2) 11. artikulua aldatzen da era honetan:

a) Honako testu hau jarriko da 1. paragrafoaren ordez:

"1. 12. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrolpeko arautze-prozedurari jarraiki hartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak, Erregelamendu hau osatzeko helburua dutenak. Neurri horiek beharrezkoak izango dira aurrerapen zientifikoa eta teknikoa direla-eta, eta III. eranskinean zehaztutako arau teknikoak eta administrazio-prozedura erkideak aldatuko dituzte.

Premiazko arrazoi larririk izanez gero, Batzordeak 12. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako larrialdi-prozedura aplikatu ahal izango du".

b) 2. paragrafoan, "12. artikuluko 3. paragrafoan" jarriko da "12. artikuluan" aipamenaren ordez.

3) 12. artikulua honako testuarekin ordeztu da:

"12. artikulua

1. Batzordeari aireko segurtasunerako komite batek lagunduko dio (hemendik aurrera «Komitea» deituko zaio).

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak eta Estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzeakoak izango dira.

Bruselan eginga, 2006ko abenduaren 20an.

*Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea*

J. BORREL FONTELLES

dira aplikatzekoak, norren 8. artikuluan xedaturikoa ikusita.

*Kontseiluaren izenean
Presidentea*

J. KORKEAOJA

4. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. bis artikuluko 1., 2., 4. eta 6. paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, horren 8. artikuluan xedaturikoa ikusita."

2. artikulua

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeitun egunera sartuko da indarrean Erregelamendu hau.